

MUNGIA. Erakusleihoen lehiaketako sariak be bananduko dabez



VERONICA MUÑOZ

Mungiako Agirre jauregian ospatuko dabe herriko merkatarien urteko gala berezia, gaur iluntzean.

Merkatarien galea ospatuko dabe gaur, Agirre jauregian

Mungiako Udalaren web orri barria aurkeztuko dabe, besteak beste

Veronica Muñoz |

Mungiako Merkatarien Alkartek hainbat ekitaldi antolatu dauz Gabonei begira, Udala eta Merkataritzarako Aholkularitza Teknikoaren Kabineteagaz batera. Ekitaldi guztien artean, nabarmenezkoa da *Mungiako dendak. Zeugandik paraje* lelopean eraturiko kanpaina.

Horren bidez, mungiarrek Gabonetako argiez bete dabez herriko kaleak, giroa alaitzeko eta aldi berean bertoko merkatarien jarduerak bultzatzeko asmoz. Kanpaina horren barruan, ganera, Mungiako Erakusleihoen Lehiaketea antolatu dabe. Barritasun batzuk egon dira aurton. Izan be, lehenengoz,

erakuslehiorik onenak herritarrek aukeratu dabez.

Horrezaz ganera, gaur bertan, Mungiako Udalaren web orri barria aurkeztuko dabe, baita San Antontxu 2003rako egitaraua be. Egun horretan, urtero, Merkatarien Alkartek Euskadiko Odoloste eta Txorizoen sariketea antolatzen dau.

Gaur gauean, 20:30etik aurrera, Mungiako Merkataritzaren Galea ospatuko dabe, Agirre jauregian. 325 gonbidapen banandu dabez horretarako, merkataria eta herritarren artean. Ekitaldi berezian erakusleihoen lehiaketearen sariak bananduko dabez, besteak beste, eta gero luntxa egongo da.

Askok dira amaitzeaz dagoen

2002an herriko merkatarien jarduerak bultzatzeko martxan ipini dabezan ekimenak, horrek guztiok plan berezi baten barruan. Holan, Aita Arrupe kalea oinezkoentzat laga dabe, eta datorren urtean Trobikan eta Alkartasuna kalean be urigintza beharrak egingo dabez.

Horrezaz ganera, merkataritzaren ganeko jardunaldi teknikoak eta Mungialdean turismoa bultzatzeko ekimenak be egin dabez aurton. Birziklatzeko edukiontzia barriak be ipini dabe herrian eta, amaitzeko, *Zeugandik paraje* lelopeko kanpaina egiten dabilz, herriko dendetan erostearen ganeko garrantziaz mungiarrek kontzientzietako.

GETXO. Gobernu Taldeak 34.800 euro inbertiduko dauz proiektu horretarako

Bolueko hezegunean hiru baso txiki lehengoratzeko dabez, eta zubia be konponduko dabe

V.M. |

Bolueko hezegunean hiru baso txiki lehengoratzeko proiektua onartu eban Getxoko gobernu taldeak, atzo eginiko batzarrean. Hezegunearen atzeko aldean egin gura dabe egitasmo barria eta bertan, besteak beste, haritzak, pagoak eta arteak landatuko dabez.

Proiektu horren bidez, agintarien azalpenetan, «gaur egun hondatuta dagoen inguru guzti hori txukundu gura dogu, parajearen ezaugarriak errespetatuz eta ingurumena zainduz». Hezegunearen gunehori, hain zuzen, Uribe Kostako korridorearen zubibidearen azpian dago, Larrañazubiko estartearen ondoan. Baso txikietan, ganera,

bertoko landareak be ipini gura dabez. Proiektu horretarako 28.200 euroko inbertsinoa egingo dabe.

Beste alde batetik, Bolueko hezegunean dagoen zurezko zubian be behar batzuk egiteko proiektua aginduko dau Getxoko Udalak. Zubia zutabe batzuen ganean finkatuta dago, eta beharren bidez, hain zuzen be, zutabe horren altuerak luzatu gura dabe.

Azkenengo beharrok esleitu-ta dagoz dagoeneko, eta proiektua ordaintzeko 6.600 euro erabiliko dabez.

LABURREAN

GETXO

Saskibaloiren ganeko jardunaldiak antolatu dabez, nesken artean zaletasuna bultzatzeko

Getxo Saskibaloit Taldeak jardunaldi batzuk antolatu dauz, egunotarako, kirol horren inguruan. Algortako San Nikolas ikastolan jokatzeko dabez partiduak, gaur, bihar eta etzi. Ekinen horren bidez, zaletasuna bultzatu gura dabe, herriko neska gazteen artean. Jardunaldiak adin guztietako neskei zuzenduta dagoz. Partiduak zati bitan egingo dabez. Alde batetik, gaur, barikuan, goizeko 10:00etatik arrastiko 18:00etara, neskato txikienek jokatzeko dabez partiduak, San Nikolas ikastolan. Egun osoan egongo dira, gelditu barik. Beste alde batetik, biharko eta etziko Gabonetako Saskibaloit Txapelketea eratu dabe Algortako zentroan, neska gaztetxoentzat.

GETXO

Diru laguntzea, Brasilen hainbat proiektu garatu ahal izateko

7.980 euroko txekia emon eutson Getxoko Udalak Meninos y Meninas de Rua Euskal Alkarteari, atzo goizean udaletxean izandako ekitaldi baten. Diru laguntzea, hain zuzen be, alkarteko kideek Brasilen martxan daukiezan proiektu batzuetan inbertiduko dabez, batez be Fortaleza uriko Pirambu auzoan kale gorrian bizi diran umeei laguntzea emoteko. Dirua Getxoko Udazkeneko Kontzertuetan lortutakoa da, sarreraren salmentari esker.

GETXO

Abesbatzen musikea, San Lorentzo elizan

Abots Alai abesbatzeak Gabonetako kontzertuak antolatu dauz, gaurko, bihar eta etziko, San Lorentzo elizan. Ondorengo taldeek hartuko dabe parte: Basauriko abesbatzeak, Urretxuko Goi Argi abesbatzeak, Larrabetzuko Gaztelumendik, Barakaldoko Lagun Betik, Bilboko Urretxindorrek abesbatzeak, Derioko Ipar Aldek, Sestaoko Gure Amatzak, eta Erandioko Altzagak eta Abots Alai abesbatzek. Kontzertuak iluntzeko 20:00etan hasiko dira, eta sarrerea doan izango da.

AGENDA

GETXO

Zinemea: *Lejos*, Andre Techine errealizatzailerearen filma emongo dabe gaur, gaueko 22:00etatik aurrera, Algortako Getxo antzokian. Getxoko Kultur Etxeak antolatutako Zinema Paradiso zikloaren barruan emongo dabe, jatorrizko bertsinoan azpitituluakaz (gaztelaniaz). Proiektzioaren ostean foruma egingo dabe. Sarrereak 2,40 euro balio dau. **Liburuaren aurkezpena:** Ibon Zubiaur getxotarrak idatzi dauen liburu barria aurkeztuko dabe gaur. *La construcción de la experiencia en la poesía de Luis Cernuda* titulupeko beharrea, hain zuzen be, psikologoak eta filosofia doktoreak Cernudak idatziriko olerkien ganeko saioa idatzi dau. Liburuaren aurkezteko ekitaldia Algortako San Nikolaseko liburutegian egingo dabe, arrastiko 19:30ean, eta sarrerea doan izango da.

BERANGO

Literaturea: Unai Elorriaga Getxoko idazleak *SPrako Tranbia* titulupeko liburu sinatuko dau, gaur, Berangoetako Kultur Etxean. Udalak liburu horren 150 ale bananduko dauz bertara hurreratzeko diran pertsona guztien artean, euskerazko literaturarekiko zaletasuna herritarren artean zabaltzeko helburuagaz. Unai Elorriagak arrastiko 19:00etatik 20:00etara sinatuko dauz liburuak. **Kontzertua:** Benito Lertxundik herriko pelotalekuan joko dau gaur, Gabonetarako herrian antolatu dabezan ekitaldian

barruan. Kontzertua gaueko 22:00etan hasiko da, eta sarrerea doan izango da.

LEIOA

Antzerkia: *Kokoroko*, Ados antzerki taldeagaz, Kultur Etxearen eskutik. Euskeraz emongo dabe ikuskizun hori, umeei zuzenduta beren beregi, eta Leioako Ume Antzerkiaren Topaketan barruan antolatu dabe. Arrastiko 18:30ean hasiko da, Musika Eskolako areto nagusian. Sarrereak 3 euro balio dau, umeentzat, eta 6 euro, helduentzat.

ERANDIO

Pailazoak: Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazo ezagunen ikuskizunaz gozetako erea eukiko dabe gaur Erandioko txikienek, arrastiko 18:30etik aurrera. Altzagako kiroldegian izango da, Gautxoriak taldeak antolatuta, eta sarrerea doan izango da. **Bertsok:** Berbots Erandion Euskaraz alkatere bertso-jira antolatu dau gaurko. Andoni Egañak eta Fredi Paia jardungo dabe bertsoetan, eta eurek batera Kepa Arrizabalaga eta Roberto Etxebarria trikitilariak arituko dira. Birela iluntzeko 20:00etan hasiko dabe, La Plaza tabernetatik. Hortik aurrera herri osotik ibiliko dira tabernaz taberna.

DERIO

Irrati maratokia: Goizeko 10:00etatik aurrera, Iloz irratia emisinoa, 24 ordu gelditu barik. **Ludotekea:** Goizeko 11:00etatik 13:00etara, makilaje tailerra.